

hazi

LEA-ARTIBAIKO EKONOMIA ALDIZKARIA

2010ko URRIA
20. ZK. • 6.urte



**Berrikuntza Guneak
ateak zabalik ditu**

Zerbitzu integrala eskainiko du
eskualdearen garapen ekonomikoari begira

Sarrera

Lea-Artibai Berrikuntza Gunean enpresa ideiak gorpuzteko bitartekoak eskaintzen dira, elkarlanari esker

LEA-ARTIBAI BERRIKUNTZA GUNEA



Ireki ditu ateak

Ekipamendu eta azpiegitura gaurkotuak eta lan talde kualifikatua, enpresen lehiakortasunaren zerbitzura. Horixe da Lea-Artibai Berrikuntza Guneak eskualdeari eskaintzen diona.

Lea-Artibai Berrikuntza Gunea 2005 urtean hasitako elkarlan dinamikaren fruitua da. Lea-Artibai eskualdeko eta eskualdez kanpoko eragileen partaidetzaz osatu da proiektu estrategiko hau. Era berean, eragile publiko zein pribatuen arteko elkarlanetik eratorri da.

Lea-Artibai Berrikuntza Gunea ikastetxeko instalazioek, Elikagaien teknologiko ikerkuntza guneak eta urriaren 7an inauguratu zen eraikin berriak osatzen dute. Berau da Berrikuntza Guneako eraikin nagusia.

Eskualde mailan, Lea Artibai Ikastetxeak, Leartibai Garapen Agentziak eta Azaro Fundazioak 2006 urtean definituriko ESPERANZA 2013 proiektuaren baitan kokatzen da egitasmoa. Inauguratu berri den eraikinean kokatutako hiru erakundeek —Lea Artibai Ikaste-txeko Ikerkuntza Zentroa Leartiker, Azaro Fundazioa eta Leartibai Garapen Agentziak— elkarrekin eta elkarlanean dihardute eskualdeko enpresa sarearen lehiakortasunaren alde lanean. Eraikinean bertan dago 13 enpresa moduluz osatutako Enpresa Haztegia ere. Bertan, hasi berri diren jarduera ekonomiko berrientzat azpiegitura eta kokalekua eskaintzen dira, oso baldintza erakargarrietan.


Azaro Fundazioa: Ekintzailetasuna bultzatzeko propio sorturiko erakundea da, ekintzaileari ibilbide guztian lagunduko diona, ideien definizioan zein jarduera ekonomikoaren kontsolidazio prozesu guztian. Urtero, jarduera ekonomiko berriak identifikatu eta garatzera bideraturiko helburuekin lanean dihardu. Jarrera proaktiboa du, enpresen berrikuntza beharizanetara aurreratuz eta halaber negozio aukera berrien identifikazioan lana eginez. Azaro Fundazioak **Enpresa Haztegiako zerbitzuak** eskaintzen dizkie Lea-Artibai Berrikuntza Gunean aktibitate ekonomiko berri bat martxan jarri nahi dutenei. Haztegi honetan, enpresa berriek oso baldintza/prezio konpetitiboetan garatu ahal izango dute lehenengo urteetako ibilbidea.

Leartiker: Lea Artibai Ikastetxeko Ikerkuntza Gunea, materialen eta elikagaien teknologietan espezializatua. Inguruko enpresen lehiakortasunaren hobekuntzara bideraturiko ikerkuntza proiektuak garatzen ditu, eta zerbitzu teknologikoak eskaintzen.

Materialen esparruan, bere lerro teknologikoak hauek dira: material berrien garapena, materialen karakterizazio eta simulazio prozesuak eta eraldaketa prozesu aurreratuak; elikagaien esparruan, ostera, elikagai funtzionalen definizioan, kontserbazio teknika berrietan eta bioteknologian zentratzen da.

Leartibai Garapen Agentzia: eskualdeko 6 udaltek sorturiko erakunde publikoa da. Ondarroa, Lekeitio, Markina-Xemein, Berriatua, Ispaster eta Etxebarriak sorturiko agentzia, eskualdearen lehiakortasunaren alde lan egiteko. Ekintzailetasun eta berrikuntza kulturaren sustatzaile lanean dihardu, leihatila zerbitzu eraginkorren bidez. Prestakuntza ere badu eragin eremu, autoenpleguaz gain eta merkataritza eta turismo sektoreen lehiakortasunaren alde lan egitearekin batera. Nahitaezko eragilea da eskualdeko sektore guztietara begirako eskaintza eraginkorra ahalbidertzeko.

Enpresa sare indartsuago baterako haziak erein eta garatuko diren bilgunea da Lea-Artibai Berrikuntza Gunea.



Azaro Fundazioa eta Garapen Agentziaren bulegoa



Polimeroen laborategia

HELBURU NAGUSIAK

Eskualdearen lehiakortasunaren alde eraginkortasunez jarduteko misio nagusiaren baitan, honako beste erronka hauek ahalbideratu nahi dira Lea-Artibai Berrikuntza Gunean.

1. ERRONKA: Banakako ekintzaileei eta enpresei zerbitzu integrala eskaini. Hau da, enpresa ideien edo negozio aukeraren identifikaziotik eta definitzotik abiatuz, enpresa proiektu berriaren kontsolidaziorainoko zerbitzu eskaintza. Horretarako, negozio aukera berrien inguruko behatokia dago martxan berrikuntza gunean, baita osagarritasunean oinarrituriko elkarlanerako dinamikak ere. Izan ere, azken helburua zera da: ekintzaileek eta edozein enpresak berrikuntza gunean euren proiektua garatzeko kalitatezko zerbitzu eskaintza osoa edukitzea.

Erronka honen garapenean, urtero bederatzi jarduera ekonomiko berri jarri nahi dira martxan Lea-Artibai eskualdean. Jarduera ekonomiko berritzaileak ahal den neurrian, kooperatibagintzaren aldeko apustu berezia ere eginez.

2. ERRONKA. Berrikuntza dinamiketan murgilduta dauden enpresa kopurua igo. Horretarako, sentsibili-

zazio eta difusio ekimenak garatuko dira, eta enpresen arteko elkarlana sustatuko da. Horretaz gain, enpresen zerbitzura jarriko dira euren lehiakortasunean eragingo duten proiektuak definitzera heltzeko tresna eta eza-gutzak.

3. ERRONKA. Material polimerikoen eta elikagaien arloan ezagutza aplikatua sustatu, ezagutza hori enpresetara eramanda, haren garapen teknologikoan eta lehiakortasunean isla dadin. Hau da, teknologia esparru hauetan, balio erantsiko produktu berriak sortzeko eta hobetzeko, negozio ildo berriak ireki eta oinarri teknologikoa duten enpresa berriak eratzeko laguntza eskaini.

Erronka honen baitan urtero lerro teknologikoen inguruko ikerkuntza proiektuak garatzen dira, eta ezagutza hori inguruko enpresen zerbitzura jartzen da.

4. ERRONKA. Lea-Artibai Berrikuntza Gunea inguruko enpresa sarearen lehiakortasuna hobetzeko proiektuen garapenerako **erreferentziatzeko gune bilakatzea** da xedea, bai eskaintzen den kalitatezko zerbitzuagatik, bai bitartekaritza eta kooperazio lanetan erakusten duen eraginkortasunagatik.

Lehiakortasunarekin konprometituri

Hainbat dira Lea-Artibai eskualdearen garapenarekin konprometituri dauden erakundeak.

ESKUALDEKO 300 ENPRESA

- 7 Ikastetxe
- Tokian tokiko 7 erakunde
- 2 enpresa publiko
- Irabazi asmorik gabeko
- 3 erakunde
- 19 banakako pertsona
- Ausaz urtero bisitatzen diren 50 enpresa

Lea-Artibai Berrikuntza Gunearen baitan kokatzen diren hiru erakundearen helburua Lea-Artibai eskualdearen konpetitibitatearen alde lan egitea da. Horretarako, Azaro Fundazioak eta Leartibai Garapen Agentziak, hein handi batean, euren gain hartu dute eskualde mailan beste hainbat enpresa eta eragileren inplikazioa piztuarazi, eta ondorioz, eskualdearen garapenean aktibitateaz.

Urteetan egindako lana emaitzak ematen ari da. Horren adierazgarri da Azaro Fundazioa eta Leartibai Garapen Agentzia dinamizatzaile direlarik eskualdearekin inplikatzera iritsi den talde/eragile kopurua. Ondorengo lerroetan deskribatzen da zeintzuk diren talde hauek. Laburbilduz, eskualdearen garapenarekin inplikaturik dagoen giza kapitala eta bakoitzaren papeira honakoa da:

TALDE/ERAGILEA	ENPRESAK/PERTSONAK
Sustatzaile Sarea	Hitza, 11 barri, Plateruena, Forja artistikoa, Lekukom, Duodak, Markina Calor Industrial, Inoxkea, Ekidom, Ongi, IKT Sistemak, Mendilankor, Ingeberri, Kudet, Leabai, Oizpe, Oka informatika, Xemein Elektrik, Ikotek, Bideratzen abokatu bulegoa, Hara ta Hona bidaiaria agentzia, Kaiet marrazkiak, S & M surf Foam Blanks, DSM, Ancora, Karenka itzulpen zerbitzuak, DPH, Kalotek, Kena errotuluak, MyMubi.
Kooperatiben Mahaia Elkarteak	Fagor Arrasate, Eika, Burdiñola, Kide, Cikautxo, Euskadiko Kutxa, Danobat, Maier.
Aditu taldea	Zuzendaritza karguan lanean egon diren eta enpresa munduan ezagutza handia duten eskualdeko pertsonak.
Ikastetxe Mahaia	Zubi-Zahar Ikastola, Txomin Agirre Ikastola, Bera-Kruz Ikastola, Resurrección M ^a Azkue Ikastola, Ondarroako Institutua eta Lekeitioko Institutua
Pertsona-Antolamendu eredu berrien foroak	Eika, Danobat-Lealde, Kauxot, Leabai, IKT Sistemak, Lantegi Batuak, Xemein Elektrizitatea, Fagor Arrasate, Lea Artibai Ikastetxea, Euskadiko Kutxa, Erabil eta Cikautxo.
Lekeitio Tour	Zubieta, Ansotegi, Villa Itsaso eta Metrokua hotelak; Akuiola, Amamana, Kurtxia eta Garro Nekazalturismoak; Trinkete aterpetxea eta Ur 2000 erakundeak.
Hemenbebai, Kitto, Zatozte Merkataritza eta ostalari elkarteak	Markina-Xemeingo Hemenbebai merkataritza eta ostalari elkarteak 45 merkatarik parte hartzen dute. Lekeitioko Kitto merkataritza elkarteak, 52k, eta Ondarroako Zatozten 105k.
Leartibai Garapen Agentziko Administrazio Kontseiluko kideak	Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein eta Ondarroako Udalak.
Azaro Fundazioko Patronatuko kideak	Lea Artibai Ikastetxea, Okamikako Industrialdea, Lea-Ibarrako Mankomunitatea, Markina-Xemeingo Udala eta Kooperatiben Mahaia elkarteak.

Sustatzaile Sarea:

Azaro Fundazioaren gidaritzapean sortu izan diren enpresek osatutako sarea da. 30 enpresek osatzen dute, eta sare honen helburua enpresen arteko sinergiak bultzatu eta berrikuntza oinarritzat hartuz, enpresok merkatuan finkatzen laguntzea da.

Kooperatiben Mahaia Elkarteak:

Identitate propioa hartu duen eta eskualdeko zortzi kooperatibek osatzen duten elkarteak da. Eskualdean kooperatiba berrien sorrera bultzatzea du helburu. Horretarako, aholkularitza gain, inbertsioetarako laguntza ekonomikoak bideratzen dute.

Aditu taldea:

Lea-Artibai eskualde mailan identifikatutako pertsona taldea da. Eskualdearen garapenarekin konprometituri, Berrikuntza Gunean martxan dauden proiektuetan euren iritzia eta jakituria eskaintzen dituzte proiektuak bideratzeko/orientatzeko helburuarekin.

Ikastetxe Mahaia:

Eskualdeko sei ikastetxek osatutako lan-mahaia da. Mahai honetan, urteroko lan plangintza adosten da ikastetxeetako ordezkari eta Azaro Fundazioko teknikari artean, eskualdeko gaztetxoengan kultura ekintzailea lantzeko eta hainbat konpetentzia lantzeko.

Pertsona-Antolamendu eredu berrien foroak:

Enpresaren lehiakortasuna bermatzen laguntzen duten antolamendu eredu berrietan eta pertsonen arteko hartu-emantetan sinesten duten eskualdeko hainbat enpresetako ordezkariak elkartzen dira.

Lekeitio Tour:

Leartibai Garapen Agentziaren dinamizaziopean sortutako foroak, non turismo sektorearekin lotutako enpresak biltzen diren. Talde honen interesa turismo sektorearen lehiakortasuna bermatzea da. Horretarako, erakunde pribatu zein publikoen arteko harremana sendotzeaz arduratzen da.

Kitto-Zatozte-Hemenbebai:


Lea-Artibai eskualdeko merkataritza eta ostalarien elkarteak dira. Talde hauen funtzioa Lekeitio, Ondarroa eta Markina-Xemeingo merkataritza eta ostalaritza sektoreak piztuta mantentzearen alde lan egitea da.

Leartibai Garapen Agentziko Administrazio Kontseiluko kideak:

Leartibai Garapen Agentzia, eskualdeko 6 udaltek eskualdearen garapen ekonomikoaren alde lan egiteko sortutako erakundeak da (merkataritza eta turismo alorrak ikutzen ditu, batik bat). Honen adierazgarri da eskualdeko udal ere Lea-Artibai eskualdearen garapenaren alde duten konpromisoa.

Azaro Fundazioko patronatuko kideak:

Lea Artibai Ikastetxea, Okamikako Industrialdea, Lea-Ibarrako Mankomunitatea, Markina-Xemeingo Udala eta Lea-Artibai-Kooperatiben Mahaia Elkarteak.



Foroek eta taldeek zeresan handia daukate eskualdearen garapenean. Lea-Artibai Berrikuntza Gunean, eskualdearen garapenaren alde lan aktiboa egingo duten talde/foroak geroz eta ugariagoak

izateko apustua egin da, eta horren ildotik datoz jarraian aipatzen diren ekimenak. Parte hartzera animatzen zaitugu. Guztiok dugu zeresana gure eskualdean.

- 1. ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN FOROAK:** Esportazioa/Nazioartekotzea, Berrikuntza, Kooperazioa gaiak landuko dira. Esportazioaren inguruko mintegia azaroaren 18an izango da.
- 2. SUSTATZAILE SAREA BILDUKO DA URRIAREN BUKAERAN,** hurrengo urtera begirako beharrianak komentatu eta euren arteko sinergien erreposoa egiteko.
- 3. ESKUALDEKO TURISMO SEKTOREKO ENPRESEK, KALITATE TURISTIKOA BERMATU ETA LEHIAKORRAGOAK IZATEKO ASMOTAN,** SICTED programaren bigarren zikloari ekingo diote (2010eko urritik 2011ko martxora bitartean). Anfitriones programan ere parte hartuko dute (urriaren 21ean eta abenduaren 16an) eta Turismo topaketak ere egingo dira azaroaren 25ean.
- 4. PERTSONA-ANTOLAMENDU EREDU BERRIEN FOROAK** bilduko da azaroaren 4an, Zuzendaritza partizipatiboari buruz eztabaidatzeko.
- 5. MERKATARITZA ALORREAN** ere topaketak egingo dira azaroaren 11n, eta erakusleho tailerra urriaren 18tik 21era.
- 6. NEGOZIO IDEIA LANTZEN ARI DEN EKINTZAILEAREN ZATZOTZ** SOTI ikastaroa emango da azaroaren 15etik 30era.
- 7. KOOPERATIBEN MAHAIA ELKARTEA** berriz bilduko da, azaroan.
- 8. AZARO FUNDAZIOAKO BEHATOKIAN IDENTIFIKATURIKO NEGOZIO AUKERA BERRIEN INGURUKO FOROAK** egingo da abenduaren hirugarren astean.



[ENPRESA HAZTEGIA]

3.600 metro koadro enpresa sortu berrientzat

Lehen urteetarako, kokalekua eskaintzen da.

Inauguratu berri den eraikinak, 3.600 metro koadroko azalerarekin, enpresa proiektuen identifikaziorako eta garapenerako zerbitzu osoa eskaintzen du, Azaro Fundazioaren, Leartibai Garapen Agentziaren eta Leartikerren zerbitzu eskaintzaren bidez: enpresa aukera berrien identifikaziotik abiatzen den Behatokia, enpresa proiektuaren garapenerako aholkularitza eta babes osoa, enpresa sorrerako tramite guztien laguntza, kontsolidaziorako zerbitzua eta honen barne, haztegia. Leartiker-en materialen arloa ere bertan dago, beti ere enpresen lehiakortasunaren hobekuntzan eragingo duen ezagutza landuz. Zerbitzu egokiak emateko, ondo hornitutako laborategiak, transformazio tailerrak eta prototipo tailerrak aurkitu daitezke eraikin berrian, besteak beste.

Ekintzaile gela, negozio ideia lantzen ari diren pertsona eta enpresentzat. Behar dituzten baliabideak (ordenagailu, telefono, bilera gelak) eta Azaro Fundazioko teknikarien laguntza eskaintzen zaizkie.

Azpiegitura eta ekipamenduak jarduera ekonomiko berria martxan jarri dutenentzat. Enpresa Haztegia, **8 bulego eta 5 pabiloiez osatutako 13 enpresa modulu daude ibilbidea hasi berri duten negozioentzat.**

Enpresa Haztegiaren helburua zera da: jarduera ekonomiko berria martxan jarri duten ekintzaileei eta enpresei lehen urteetako ibilbidea erraztea. Horretarako, alokairu prezioan bonifikazioak aplikatuko dira lehen hiru urteetan, eta 5 urte egon ahalko dira bertan.

Euren jarduera garatzeko leku fisiko bat eskaintzeaz gain, hainbat zerbitzu komun eskainiko zaizkie Enpresa Haztegia kokatuko diren enpresa sortu berriei.

BULEGO ITXURAKO ENPRESA MODULUAK (34-55 m² BITARTEKO 8 BULEGO):

- Telefono eta Internet instalazioa
- Berogailua
- Aire egokitua
- Posta jasotzeko zerbitzua

PABILOI ERAKO ENPRESA MODULUAK (68-90 m² BITARTEKO 5 PABILOI ESKAINTZEN DIRA):

- Ke-erazagailua
- Ura
- Koadro elektrikoa: 22 kw
- Aire konprimatuaren hartunea
- Gillotina erako atea
- Pabiloi bakoitzak ganbara edo tarteko solairua dauka. Nahi izanez gero, bulegoarentzako lekua dago, telefonoa eta Internet linea jartzeko instalazioarekin.

ENPRESA HAZTEGIKO ZERBITZU KOMUNEI DAGOKIENEZ, HONAKOAK ESKAINTZEN DIRA:

- Lehenengo 3 urteetan bonifikazioak izango dituzte alokairu prezioan (%75eko deskontua lehen urtean, %50eko deskontua bigarren urtean eta %25eko deskontua hirugarren urtean).
- Guztira 5 urtera arteko egonaldia egin ahal dituzte bertan
- Bilera gelak erabiltzeko aukera.
- Posta jasotzeko zerbitzua
- Gune komun garbitasuna
- Dutzak eta aldagelak
- Ibilbide guztian Azaro Fundazioko teknikariak izango dira jarduera ekonomiko berriaren bidelagun. Diru laguntzen informazioa, tramitazioa, alde ekonomikoaren errepasoa eta jarraipena, lan komertziala egiteko laguntza... eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie Azarok negozio ideia berriei.

BERTAN KOKATZEKO BALDINTZA BAKARRA:

Jarduera ekonomiko berria izatea.

ELKARLANAREN FRUITUA

Eskualde mailako zein eskualdez gaindiko eragileen laguntzarekin egin du aurrera Lea-Artibai Berrikuntza Guneak, oinarri-oinarrizko baldintza errealitate bihurtu dadin

Berrikuntza Gunea elkarlan dinamikaren fruitua da. Eskualde mailako elkarlanaren fruitua da, eskualdez gaindiko eragileen partaidetzaz osatu dena, hain zuzen ere. Eta hori ezinbestekoa da Lea-Artibai moduko eskualde txiki batentzat.

Lea Artibai Ikastetxe-ko Formazio atal guztiak, bere Ikerkuntza Zentroa Leartikerrek, Azaro Fundazioak (eta haren baitan dauden Markina-Xemeingo Udalak, Lea Ibarreko Mankomunitateak, Okamikako Industrialdeak eta Kooperatiben Mahaia Elkarteak) eta Leartibai Garapen Agentziak definitu zuten Esperanza 2013, eta ordutik elkarlanean dihardute eskualdeko enpresa sarearen lehiakortasunaren alde.

Bestalde, eskualdeko erakunde hauek beste hainbat eragileekin lanean dihardute, helburu hauetara heltzeko behar den ezagutza osotuz, bai ikerkuntzaren esparruan, prospekzioan, prestakuntzan edo eskaini beharreko aholkularitzan.

Aipatzekoa da eraikin berriaren finantziazioan egindako bidelagunak. **Kofinantziatio plan-gintza baten baitan finantziatu da eraikina bere osotasunean.** Gaur arte 8.200.000 euro inbertitu dira. 1.200.000 euro Elikagaien Teknologia Gunea prestatzen eta 7.000.000 euro Berrikuntza Guneko eraikin nagusian. Finantziatioa-



ri dagokionez, Madrilgo zientzia eta Berrikuntza Ministeritza, Eusko Jaurlaritza POPV-FEDER 2007-2013 programaren baitan, Eusko Jaurlaritzako Industria Saila, Bizkaiko Foru Aldundia eta Mondrago Taldearen laguntza jaso da.

Lau erakunde hauen kolaborazioarekin lortu da Berrikuntza Gunea %100ean finantziatzea.

Bestalde, aipatu beharrekoa da ondorengo entitateek proiektuaren helburuak bete ahal izateko ematen duten laguntza:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Saila eta bere enpresa publikoa BEAZ
- Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza, Industria, Merkataritza eta Turismo Saila eta bere enpresa publikoa SPRI
- Eusko Jaurlaritzako beste zenbait sail. Hala nola Hezkuntza, Ikerkuntza eta Unibertsitate Saila, Arrantza eta Nekazaritza Saila, Lan Saila....
- SPEE-INEM

Eskualde mailan honako erakundeak izan dira proiektu honetan bidelagun:

- Markina-Xemeingo Udala
- Leartibai Garapen Agentzia eta beraz eskualdeko udal guztiak
- Lea Ibarreko Mankomunitatea
- Okamikako Industrialdea, S.A erakunde
- Kooperatiben Mahaia Elkartea

Egunerokotasunean, aipamen berezia merezi dute Esperanza 2013 proiektuan finkatutako helburuak lortzeko lanetan ari diren hiru erakundeek. Lea Artibai Ikastetxea, Azaro Fundazioa eta Leartibai Garapen Agentziako lan talde osoaren lanari esker ari dira lortzen helburuak, horien artean, Lea-Artibai Berrikuntza Gunearen garapena.

Aurrerantzean ere gogotsu jarraitzeko asmoa dute hiru erakundeok bizirik dagoen proiektu honen baitan lanean, **trebakuntza, ekintzailetasuna, berrikuntza eta teknologian** oinarritzen den proiektu honetan.

Erakundeen babesa

Erakunde askoren laguntzari esker egin du aurrera Berrikuntza Gunearen proiektuak.



JOSE MARI ALDEKOA

[MONDRAGON KORPORAZIOKO LEHENDAKARIA]



JUAN IGNACIO GOIKOLEA

[BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIAKO SAILBURUORDEA]



PATXI SIERRA SESUMAGA

[BIZKAKO AHALDUN NAGUSIORDEA]

Gaur egun enpresek daukaten egoera kon-tuan hartuta, horrelako proiektuek zertan lagundu dezaketela uste duzu?

XXI. mendean gaudela, mundu globalizatu-tuan, Euskal Herrian lanpostuak mantentze-ko ezin da orain 20 urte egiten zen gauza bera egin. Berrikuntzaz berba egiten denean, zera esan nahi dugu: gauza desberdinak desberdin egitea. Eta berrikuntzarako baldintza aproposak daukagu Lea-Artibai Berrikuntza Guneari esker. Beste alde batetik, Lea Artibai ikastetxea oso oso lagungarri da. Gainera, zera azpimarratu behar da: orain 40 urte talde kooperatiboek indarra hartzeko laguntza izan bazuten, orain premia askoz garbiagoa dela. Non eta Markina-Xemeinen. Izan ere, heziketa garrantzitsua den moduan, norberak norbere inguruan lan egin eta bizitzeko aukera edukitzea ere bai.

Nola baloratzen duzu horrelako proiektu bat?

Esperanza 2013 proiektuaren definizioak bat egiten du gure departamenduaren helburuekin. Bestalde, txalotzekoa da teknikariak proiektua aurrera ateratzeko daukaten indarra eta gogoia. Guk gure aldetik esan beharra daukagu poz-oz gaudela azken urteetan horren gogo handiz landu den proiektu batek argia ikusi duelako. Badakigu krisian gaudela, eta eutsi egin behar dela. Horren aurrean, lehiatu egin behar da. Eta hortxe dago Esperanza 2013. Bestalde, beharbada pentsa daiteke Lea-Artibai moduko eskualdeak atzeratuta doazela, eta Esperanza 2013 moduko proiektuek uste horiek ezerezean uzten dituzte. Esperanza 2013 eta horrelako beste esperientzia batzuei esker lortuko dugu aurrera egitea. Ondo egiten ari garelako.

Ze mezu nabarmendu nahi du Aldundiak?

Bizkaia zerbaitegatik nabarmendu izan bada bokazio industrialagatik izan da. Garai batean indartsua izan zen, eta gero deprimetuta egon zen. Esperanza 2013 bera da bilakaera horren adibide. Izan ere, garai batean industria aktibitate garrantzitsua egon zen hemen. Baina aurrera begira jarriz, badago nabarmendu nahiko nukeen mezua, mezu bakorra: orain arteko krisietatik atera gara, eta oraingo honetan ere aterako gara. Horretarako formula hau da: sakrifizioa eta esfortzua. Sakrifizioa, administratibotik. Eta esfortzua, formazioan eta berrikuntzan. Jose Luis Bilbao Ahalduen Nagusiak behin eta berriz esaten dituen berba ondo baino hobeto datoz testuinguru honetan, eta horixe azpimarratu nahiko nuke: erein egin behar da gero jaso ahal izateko.



JOSE VARELA

[LURRALDE POLITIKAKO ZERBITZU ARDURADUNA]

Nola baloratzen da honelako proiektu bat Europako Estrategiaren barruan? Zergatik lagundu du proiektua FEDE-Reg?

Dudarik barik, aldi honen helburu garrantzitsua Europako lehiakortasuna bultzatzea da, atal guztietan. Eta, begi bista-

koa da, proiektu hau ondo baino hobeto dator helburu horri bideratuta. Gainera, beste gauza garrantzitsu bat ere aipatu behar da: Lisboako estrategia modura ezagutzen denak (hain zuzen ere aurten amaitzen da) helburu hau ere jasotzen du, hau da, lana sortu eta hezi-

keta indartzeaz berba egiten du. Eta hori Esperanza 2013aren proiektuaren ardatzik eta garrantzitsua da. Beraz, FEDER-ek proiektu hau lagundu beharra zeukan, ezbaierik barik haren helburuekin garbiro eta bete-betean bat datorrelako.

JUAN TOMAS HERNANI

[ESPAINIAKO GOBERNUKO ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOKO IDAZKARI NAGUSIA]

Ze ekarpen egiten du Esperanza 2013k?

Eskualde honen alde egitea Euskadiren alde egitea da. Horregatik, babes ekonomikoaz gain, babes pertsonala eman nahi diot proiektuari. Esperanza 2013 oinarritzko proiektua da ekoizpen ereduaren aldaketa-

rako. Jendea hezi eta ekintzailetasunera bideratu, horixe da egin behar dena, eta horixe da zuek egiten duzuen. Gainera, eskualde mailako ekimena izanik, potentzial eta garapen aukera handiak ematen ditu, eta horrek, azken batean, lanerako aukerak zabaltzea dakar, aurre-

ra egitea. Ministerioaren politika bat dator, erabat, Mondragonen politika orokorrekin. Mondragon berrikuntzaren eredu da, mundu mailan. Eta Esperanza 2013 moduko proiektuek ekintzailetasuna eta behetik gorako berrikuntza kultura gartzatzen laguntzen dute.



RAUL ONAINDIA

[BEAZ-EKO ZUZENDARIA]

Zeintzuk dira zure ustez proiektu honen elementu garrantzitsuenak?

Hurbiltasuna. Batez ere enpresekiko eta gizartearekiko hurbiltasuna azpimarratuko nuke. Bizkaiko Foru Aldundiak esperientziarekin ikusi du berrikuntza proiektuak eta enpresa be-

rrien proiektua gaur egun sartzen direla kontsolidatutako enpresetan, eta hezkuntza edo goi-hezkuntza jendearekin lotuta dagoela. Nire ustez, proiektu berri hau sortzen da gehienbat Lea-Artibai eskualdearen inguruan dauden enpresen laguntzarekin eta hezkuntza zentro-

en laguntzarekin, eta, hain zuzen, horretarako ematen dio proiektuari hurbiltasuna. Ez da kanpotik datorren baten burutazioa, oinarri handiko proiektua baino, bertoko industria ehunean oinarrituta dagoelako. Ikasketak eta proiektuekin lotuta dago, eta zerbitzua ematen die.

JABIER ALBERDI

[MARKINA-XEMEINGO ALKATEA]

Zelan ikusten duzu inguruak eduki duen garapena?

Ezin da aipatu barik utzi seguraski Markina-Xemeinek eduki duen pertsonarik garrantzitsuenak, Jose Mari Arizmendiarekin. Proiektu hauen guztien hastarritu dago. Beatifikazio bidean da. Ba, Jose Mari Arizmen-

diarretaren miraria hementxe dago. Arma lantegia zentro teknologiko bihurtzea badelako nahiko mirari. Bestalde, pertsonalki eskerrak eman nahi dizkiet, batez ere, Josu Erkorekari eta Iñaki Anasagastiri, besteak beste, betidanik sinistu izan dutelako proiektu honen garran-

tzian, eta beti egon direlako laguntzeko prest. Bestalde, eman diguten sari hau nire aurretik alkatetzan egon direnekin konpartitu nahi dut, batez ere Lauren Aretxabaletarekin. Orain hamabost urte, gaur egun denok aipatzen dugun berrikuntzaren beharrean sinisten zuen.



LEIHATILA

DIRU LAGUNTZAK ▶

MERKATARITZA SEKTOREAN ESKUALDATZEA ETA EKIMENA

Xedea: Merkataritza sektoreko enpresa bat itxi edo eta berri bat zabaltzeko aholkularitza zerbitzueta-rako diru laguntzak.
Epea: 2010/12/15

FINANTZA TUTORETZA

Xedea: Industria, Turismo eta Merkataritza arloko enpresek finantza kudeaketaren arloko gaitasuna eta esperientzia hobetzeko laguntza.
Epea: 2010/12/01

MIKROENPRESA DIGITALA

Xedea: ordenagailuak erostea, Internetera alta ematea eta hasierako 6 hileetako kuotak eta birus-kontrako softwarea diruz laguntzen ditu, 9 langiletik beherako enpresentzat.
Epea: 2010/12/31

RESISTE

Xedea: finantza zorrak negoziatzeko homologatutako goi mailako finantza aholkulariak kontratatatzeko laguntzak.
Epea: 2010/12/31

ALDATU

Xedea: berrikuntza bikaineko proiektuak sustatzeko laguntzak.
Epea: 2010/11/25

«MINI CONNECT» PROGRAMA

Xedea: hazkunde-gaitasun handiko enpresa gazte berritzaileek proiektua abian jartzeko beharrezko diren gastu edo inbertsioetarako.
Epea: 2013/12/31

«CONNECT» PROGRAMA

Xedea: industriako edo berari lotutako zerbitzuetako enpresa gazte berritzaile eta hazkunde-gaitasun handia dutenek abian jartzeko beharrezko diren gastu edo inbertsioetarako.
Epea: 2013/12/31

LEHIA ETA BERRIKUNTZA IBILBIDEAK

Xedea: Lehia eta berrikuntza ibilbidea definitzea, berrikustea eta garatzea.
Epea: 2010/12/31

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ARLOKO PROIEKTU BERRIEI LAGUNTZA

Xedea: energia berriztagarriak ustiatzeko instalazioei egotz dakiekeen ibilgetu materialean egindako inbertsioa, instalazioaren funtzionamendurako beharrezkoa dena eta berriztagarriak ez diren beste teknologia batzuk erabiliz justifikatu ezin dena.
Epea: 2010/11/30

PATENTEAK

Xedea: Europako (EPO) edo nazioarteko (PCT bidez) patente-eskabideak aurkezteari eta izapidetzari lotuta dauden jarduerak.
Epea: 2010/12/30

RENOVE M-H

Xedea: enpresa txiki eta ertainetan ekipamendu produktiboen modernizazio maila handitzea eta produktibitatea hobetzea.
Epea: 2010/12/31

ONDORENGOTZA

Xedea: Enpresa txiki eta ertainei laguntza jabetzaren edo kudeaketaren ondorengotza planifikatzeko.
Epea: 2010/12/31

PRAKTIKETAKO KONTRATAZIOA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK

Xedea: 12 hilabeteko praktiketako kontratuak diruz lagunduko dira.
Epea: 2011/02/28

LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO «COMPITE INICIATIVAS»

Xedea: Lehiakortasuna hobetu eta haien garapen ahalmena indartzea.
Epea: 2010/11/25

Informazio gehiagorako DEITU:

94 6169172
94 6169088

Leartibai
Garapen Agentzia

azaro
fundazioa